haziak

IGEL MARROITXO

Pello Añorga - Idoia Beratarbide

Esku artean duzun ipuina Haziak proiektuaren baitan sortu da. Haziak, diziplina eta entitate anitzeko egitasmoa da, gizarteko partaideen arteko elkarbizitzan harreman desorekatuak eta botere harremanak iraultzea du helburu.

Liburu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren lkasmina deialdiko dirulaguntza jaso du.

Lehen argitaraldia: Oiartzun, 2016ko otsaila.
Testua: Pello Añorga
Marrazkiak: Idoia Beratarbide
Diseinua eta maketazioa: Dixidu diseinu grafikoa
Inprimategia: Antza komunikazio grafikoa
Argitaratzailea: Iametza Interaktiboa S.L.
Ekoizpen orokorra: Haziak Egitasmoa
Koordinazioa: Nora Barroso eta Nekane Martiarena
Harremanetarako: kaixo@haziak.eus

ISBN: 978 - 84 - 608 - 5394 - 7
L.G.: SS 62 - 2016

Liburu hau Creative Commons BY-NC-SA 3.0 lizentziapean argitaratua dago. Proiektu honen edukiak kopiatu, banatu, lan eratorriak sortu eta jendaurrean eda ditzakezu, beti ere, egileïtza aitortzen baduzu. Halaber, edukiekin irabazi ekonomikorik ez lortzea eta lan eratorrien lizentzia jatorrizkoarenaren berdina izatea derrigortzen da.
http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu

creative commons

Igel Marroitxo

Pello Añorga - Idoia Beratarbide



Korroka-korroka, igelak saltoka: igel berdeak,
igel gorriak, igel horiak, igel urdinak...
igel guztiak batera, igel guztiak gustura,
leku hartantxe baitzuten jolas lekua, zingiraren erdian,
ur geldian, ur bigunean, putzu handiaren ondoan,
hezegune bikainean.

Salto egiten aritzen ziren guztiak, igel guztiak gustura:
igel berdeak, igel gorriak, igel horiak, igel urdinak ...
igel marroi bat aparte utzita, guztietatik bat bereizita:
MARROITXO.

Marroitxo saltoka ibili beharrean, ibiltzen zen zapoka, zapo baten modura: arrastaka. Horregatik, igel guztiek deitu beharrean Marroitxo, deitzen zioten "zapo".

– Ni ez naiz zapoa; ni igela naiz, zuek bezalakoa, entzuten al didazue?

Alferrik, igelek ez zioten entzuten, ez ziren konturatzen haren begi borobilak itzali egiten zirela eta tristatzen deitzerakoan "zapo".

Hortaz, egun batean, nazkatuta, Marroitxok hanka egin zuen, korroka bat ere egin gabe, inor konturatu gabe, ezer gabe, arrastaka, bakarrik, isilik.

Eta aurrera, zingiran barrena, aurrera, iritsi zen putzu txiki batera. Etzanda jarri, eta, aspaldiko partez, lasaitua hartu zuen, eguzkiaren printzak lagun zituela. Harri baten gainera igo eta geratu zen geldi patxada ederrean, geratu zen geldo, geratu zen lo.

Eta horratx, lotan zegoela, konturatu gabe, pixka bat mugitzen hasi eta, karrak eta klauk, hor erortzen da putzura! Begiak zabaldu, eta, ur ilunean, ezer ikusten ez zuela, hasi zen borrokan, barruko korrontean barrena, harrapatuta balego bezala amets gaizto baten erdian.

Zorionez, irtetea lortu zuen kanpora, putzuaren beste aldera. Uretatik atera eta geratu zen durduzatuta. Non ote zegoen? Eguzkiak gogor jotzen zuen, eta, bat-batean, hor ikusi du *Bi Hankaduna*. Lau Hankadunak ezagutzen zituen, baina, *Bi Hankaduna*? Eta berarengana joan zen laguntza eske.



Bi Hankadunak galdetu zion:

– Kaixo, zapo, zer nahi duzu?

Marroitxori, "zapo" hitza entzun ahala,
begi borobilak irten zitzaizkion:

– Aizu, ni zapoa ez, ni igela naiz,
Igel Marroitxo, entzuten?

Bi Hankadunak barkamena eskatu behar izan zion
eta berriro galdetu:

– Igel Marroitxo, Igel Marroitxo, zer nahi duzu?

Igel Marroitxok korroka lehorra eginda,
azkar adierazi zion:

– Salto egiten ikasi nahi nuke. Horixe bakarrik.

– Salto egiten? Ba hori oso erraza da.
Neronek erakutsiko dizut.

Patio batera eraman eta Igel Marroitxori
erakutsi zion salto egiten:

"Saltoka-saltoka,
nabil ni gustura,
salto eta salto bat sartu arte,
sartu dadila Marroitxo,
eta biok elkarrekin,
salto eta salto bat irten arte,
eman ezazu buelta eta irten zaitez".

Marroitxok, baina, begiak arrastaka,
ez zuen salto bakar bat ere egin.

Bi Hankadunak ez zuen etsi. Erreparatu zion Marroitxoren begirada ilun tristeari eta esan zion:

– *"Saltoka-saltoka, kanpora arazoak, makurtuta altxatu: gainditu arazoak".*

Eta errepikatu:

– *"Saltoka-saltoka, kanpora arazoak, makurtuta altxatu: gainditu arazoak".*

Eta hitzak errepikaturik, paratu zion ohe bat, ohe borobila, ohe elastikoa, salto egiten ikas zezan.

Baita ikasi ere! Marroitxok begi borobilak pizturik, hankak luzaturik, karrak eta klauk!, lehenengo saltoa egitea lortu zuen: boing! Eta bigarrena ere bai: boing! Baita hirugarrena ere: boing! A zer salto handiak! Arranopola! Salto super handiak egitea lortu zuen Marroitxok: boing!, boing!, boing!

Eta korroka-korroka, esan zuen saltoka:

– *"Saltoka-saltoka, nabil ni gustura . . ."*

Eta Igel Marroitxo hain gustura zebilenez, gustura, oso gustura, txoratuta, galdetu zion *Bi Hankadunari:*

– Zergatik ez gara joaten orain uretara?

Bi Hankadunak ezetz erantzun zion.

– Nik ez dakit igerian, Marroitxo.

A zer erantzuna! Igel Marroitxok uste zuen denek zekitela igerian, baina ikusia zegoen ezetz. Begi borobilak areago borobildu eta *Bi Hankadunari* erantzun zion azkar:

– *"Igerian-igerian, kanpora arazoak, makurtuta altxatu: gainditu arazoak".*

Eta bat, bi eta hiru, igerian erakutsi zion, berak zekien eran: igel estiloan.



Eta igel estiloa erakutsi bazion erakutsi,
joan ziren elkarrekin ez bakarrik igerian,
joan ziren baita saltoka ere, saltoka-saltoka,
aurrera, zingiran barrena, igelek zuten jolas lekura.
Eta hantxe, saltoka agurtu zituzten igel berdeak,
igel gorriak, igel horiak, igel urdinak...
Eta igel guztiak ziren harritu. Izan ere, Marroitxo
ibili beharrean arrastaka zapo baten modura,
zebilen saltoka, igelak bezala, salto handiak egiten,
Bi Hankadunarekin batera, igel estilo bikainean.

Igelek esan zioten:

– Marroitxo, zuekin jolastu nahi dugu!
– Marroitxo, zuek egiten dituzue salto super handiak!
– Marroitxo, nik ere salto super handiak egin nahi ditut zuekin batera!
– Marroitxo, Igel Marroitxo!

Eta Igel Marroitxok, orduan, begiak inoiz baino borobilago paraturik, korroka-korroka erantzun zien:

– Ongi da, elkarrekin egingo ditugu salto super handiak.



Eta halaxe gertatu zen, igel guztiak gustura,
hantxe hasi ziren igel guztiak saltoka:
igel berdeak, igel gorriak, igel horiak,
igel urdinak... Igel Marroitxorekin eta
Bi Hankadunarekin batera, poing!, poing!, poing!,
salto handiak eginez, salto super handiak,
hantxe, leku hartantxe,
zingiraren erdian,
ur geldian,
ur bigunean,
putzu handiaren ondoan,
hezegune bikainean.

haziak

Gipuzkoako Foru Aldundia

ikasmina:

iametza interaktiboa

ISBN 978-84-608-5394-7